



ADINGABEAK ZAINTEAGATIKO LANALDI-MURRIZKETA 12 URTE ARTE LUZATU DA

Aurreko abenduaren 20an Ministro Kontseiluak onartu zuen lege-dekretua baten bidez adingabeak zaintzeagatiko lanaldi-murrizketa hartzeko aukera seme-alabak 12 urte bete bitartean zabaltzea. Lehendik eskubide hau adingabeak 8 urte bete arte erabil zitekeen.

Luzatze hau indarrean dago 2013ko abenduaren 22tik eta Langileen Estatutuaren 37. artikulua 5 atalaren 1. paragrafoa aldatu du. Langileen Estatutuan txertatu denez gero langileen eskubidea da eta enpresa guztiek bete behar dute data horretatik aurrera.

Indarrean dagoen legea ez dator bat 2008-09ko EAeko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen Lan-hitzarmenak hainbat puntutan dioenarekin. Gogora ekarriko dizuegu adingabea zaintzeagatik lanaldi-murrizketaren ezarpena arautu eta aipatu Langileen Estatutuko 37. artikuluan jasotzen diren baldintza legalak.

BORONDATEZKO LANALDIAREN MURRIZKETAZ JAKIN BEHAR DUZUNA

Badago gure lanaldia murrizteko aukera familia-egoera zehatzez arduratzeko. Egoerak berak sortzen du eskubidea eta enpresak ezin du galarazi. Baliteke aldi berean bi pertsonak eskubideaz baliatzea ere, egoera sortu duen pertsona bera izanik ere. Murrizketa honek, ongi erabiliz gero, bermatu egiten du aurreko lanaldi osoko egoerara itzultzea nahi denean edo arrazoiak desagertzen direnean. Hauek lirateke aintzat hartu beharreko gaiak:

ERAGILEAK

Gure legezko zaintzapean dauzkagun seme-alaba edo adingabeak, elkarrekin bizi den bikotekidearenak barne; lanik egiten ez duelako, bere kabuz baliatu ezin den edo elbarritasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duen bigarren mailara arteko ahaidea; minbizia edo beste gaixotasun larria dutelako, ospitalizatuak dauden edo epe luzerako zaintza zuzena, kreditatua, etengabea eta iraunkorra behar duen 18 urte baino gutxiagokoa.

MURRIZKETA – PORTZENTAJEA

Ohiko lanaldi-murrizketa lanaldiaren zortziren bat (%12,5) izango da gutxienez, eta erdia (%50) gehienez. Minbizia edo beste gaixotasun larria duen adingabeen kasuan %50 eta %100 bitartekoa. Murrizketa egunero gauzatu behar da eta ezin da metatu jardunaldi osoetan. Lan hitzarmenak aurkakoa arautzen ez badu behintzat, murriztutako ordutegia jardunaldiaren barnean nahi dugunean izan daiteke, eta enpresaren antolakuntza-beharrak edo lankideei sortu ahal zaizkien kalteak ez dira arrazoi eskubidea ukatzeko.

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Joakin Beunza 4-6	31014 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org



Ordutegi berria behin ezarrita enpresak ezingo du aldatu akordio barik. Eskatutako ordutegiari ezezkoa ematen badiote demanda bat egin beharko litzateke. Badago prozedura laburra; 5 eguneko epean betetzen dena eta bitartekaritza egiten da zure lanaldia edo antzekoa lortzeko.

AURREABISUA

Idatziz egin behar da 15 egun lehenago lanaldi-murrizketa hasiko den data eta baita 15 egun lehenago ere murrizketa amaituko den data. Lan-Hitzarmenak bestelakorik ezarriko balu, hori bete beharko litzateke

KOTIZAZIOAK

Erretiro, ezintasun iraunkor, heriotza eta biziraupen, amatasun eta aitatasun kasuetarako %100eko oinarria bermatzen da (lehen 2 urteetan seme-alabak zaintzeagatik eta lehen urtea ahaideak zaintzeagatik). Langabezia-prestazioetan ez dago eraginik kotizazioak lanaldi-murrizketa izan ez balitz egin beharreko kotizazioen %100ekoa osatu arte handituko direlako. Era berean, despidoa, kontratua eten edo amaitutako kasuetan kalte-ordainak lanaldi-murrizketarik ez balego moduan kalkulatu litzateke.

BESTELAKO ABANTAILAK

Zure soldata hein berean gutxitzen bada ere, badaukazu Enplegu eta Gizarte Politikak Sailak ematen dituen lana eta familia bateragarri egiteko diru-laguntzak eskatzeko aukera. Minbizia edo beste gaixotasun larria duten adingabeak zaintzeko ere badaude berariazko diru-laguntzak. Baliteke soldata garbia gordina baino gutxiago gutxitzea PFEZ-i dagokion atxikipena murrizten delako. Horrez gain, murrizketa egoera honetan zauden bitartean bidegabeko despidoaz babesturik zaude.

Gure lan baldintzak borrokatuz!!

Murrizketarik ez !!



ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	✉ araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	✉ bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	✉ gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Joakin Beunza 4-6	31014 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	✉ nafarroa@stee-eilas.org